

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 5451

*EBAZPENA, 2022ko urriaren 6koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko urriaren 14ko Aginduaren bidez abian jarritako deialdia. Agindu horren bidez, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen eta informazio-programetarako zein egintzetarako laguntzen 2022. urterako deialdia egin zen.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko urriaren 14ko Aginduaren bidez, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako laguntzen 2022. urterako deialdia egin zen (2021eko urriaren 22ko EHAA, 211. zk.).

Deialdi horri honako hauek aplikatuko zaizkio: 1308/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentearena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, nekazaritza-produktuen Merkatuen Antolaketa Bateratua sortzen duena; 2016/1149 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, Batzordearena, 2016ko apirilaren 15ekoa; 2016/1150 (EB) Exekuzio-Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 15ekoa; eta 1363/2018 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Espainiako mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari 2019-2023 aldiaren laguntzeko programaren neurriak aplikatzeko dena, baita 227/2014 Dekretua ere, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzeko.

Aipatutako 2021eko urriaren 14ko Aginduan ezarritako epearen barruan, eta bertan ezarritako prozeduraren arabera, laguntza-eskabideak aurkeztu ziren.

2021eko urriaren 14ko Aginduan eratu eta 2022ko martxoaren 15eko Aginduaren bidez aldatutako Balorazio Batzordeak aurkeztu ziren eskabideak aztertu eta baloratu ondoren, abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuan xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenda bat egin zen lehentzako programa hautatuekin, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Nekazaritza eta Landa Garapenaren Sektoreko Konferentziara bidali zen data honetan: 2022ko martxoaren 15ean.

Autonomia-erkidegoen proposamenak aztertuta, Nekazaritza eta Landa Garapenaren Sektoreko Konferentziak, azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa betez, hautatutako ekintzak eta programak eta, tartean, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, biltzen zituen behin betiko zerrenda onartu zuen 2022ko martxoaren 22an.

Ikusita Sektoreko Konferentziak onartu duen behin betiko zerrendan Euskal Autonomia Erkidegoarenak diren programak, eta abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei laguntzak ematea hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako, 2023ko NBEF ekitaldia, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko urriaren 14ko Aginduaren babespean, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako

laguntzak deitzen dira 2022ko ekitaldirako, eta aipatu eranskinean zehazten dira diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa eta onuradun bakoitzari aitortutako zuzeneko laguntzaren zenbatekoa; hala, guztizko zenbatekoa 10.624.492,57 euro (diruz lagun daitekeen gastuaren % 46,00a) da, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren kontura (NBEF).

Bigarrena.–Azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 11. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa betez, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean, onuradunek ebazpen honen eranskinean zehazten den laguntza onartu dutela jakinarazi beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen aldeko berme bat eratu dela ere, emandako laguntzaren zenbatekoa baino ehuneko 15 txiki izango dena gutxienez.

Abala honela aurkeztu ahal izango da:

Aurrez aurre: abalaren jatorrizkoa aldeztu aurretik gordailutuko da Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusian (Lakua II – 1. solairua), 09:00etatik 13:00era artean.

Telematikoki: Eusko Jaurlaritzaren Bermeen Erregistroan:

1.– Banketxe/Elkarrekiko Berme Sozietate/Aseguratzailerak batek digitalki sinatutako abal/kauzio-aseguruen kasuan, horiek posta elektronikoz bidali ahal izango dira [TesoreriaAval@euskadi.eus](mailto:TesoreriaAval@euskadi.eus) helbidera.

2.– Eskudirutan eratutako abalak banku-transferentziaren bidez egin ahal izango dira. Interesdunak erregistratzeko behar diren datuak bidaliko ditu [Tesoreria-Aval@euskadi.eus](mailto:Tesoreria-Aval@euskadi.eus) helbidera. Hauek dira: enpresaren izena eta IFZ, abalaren zenbatekoa, espediente-zenbakia, «hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako, 2023ko NBEF ekitaldia» laguntza-kontzeptua eta bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen alde eratu dela. Datuak egiaztatu ondoren, dirua sartzeko kontu-zenbaki bat emango da eta, behin sartuta, egiaztagiria bidali beharko da. Diru-sarrerara egin dela egiaztatu ondoren, bermea erregistratuta geratuko da. Hirugarrena alta emanda ez badago, horretarako behar den dokumentazioa eskatuko da.

Justifikazio-gastuen ordainketa guztiak sustapen-ekintzetarako eta programetarako bakar-bakarrik erabiliko den banku-kontu baten bitartez egingo dira.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, erakunde interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, edo, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 6a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,  
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2022ko abenduaren 20a, asteartea

## ERANSKINA

## NBDEF FUNTS KOMUNITARIOAREN KONTURA AINTZATETSITAKO LAGUNTZAK

Programa zk.	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	2022-2023 Programaren Aurrekontua (eurotan)	2023 NBDEF Laguntza (eurotan)
1	00028-PRO2022-13	Bodegas Baigorri, SAU	A01249887	207.605,97	95.498,75
2	00009-PRO2022-13	Bodegas Heredad de Aduna, SL	B01282698	23.816,00	10.955,36
3	00004-PRO2022-13	Bodegas Murua, SA	A01009778	26.296,00	12.096,16
4	00002-PRO2022-13	Bodegas Campillo, SL	B01040476	167.895,00	77.231,70
5	00023-PRO2022-13	Bodegas Valdemar, SA	A01015494	294.840,00	135.626,40
6	00020-PRO2022-13	Bodegas Eguren, SA	A01016930	115.830,00	53.281,80
7	00010-PRO2022-13	Bodegas Larchago, SA	A78968237	100.409,40	46.188,32
8	00007-PRO2022-13	Bodegas Vetus, SL	B01387216	29.248,00	13.454,08
9	00021-PRO2022-13	Pernod Ricard Winemakers Spain, SAU	A11606118	4.008.015,76	1.843.687,25
10	00031-PRO2022-13	Granja Nuestra Señora de Remelluri, SA	A20106258	17.082,00	7.857,72
11	00030-PRO2022-13	Compañía de Vinos Telmo Rodríguez, SL	B01172261	137.627,10	63.308,47
12	00006-PRO2022-13	Finca Villacreces, SL	B01368729	80.379,00	36.974,34
13	00013-PRO2022-13	Cía Vinícola del Norte de España, SA	A48002893	4.534.414,56	2.085.830,70
14	00003-PRO2022-13	Bodegas Remírez de Ganuza, SLU	B20303103	155.385,36	71.477,27
15	00005-PRO2022-13	Bodegas Izadi, SA	A01036870	167.895,00	77.231,70
16	00022-PRO2022-13	Bodegas Fernández de Pierola, SL	B01241405	109.512,00	50.375,52
17	00025-PRO2022-13	Agrícola La Bastida, SL	B01265305	15.824,00	7.279,04
18	00018-PRO2022-13	Bodegas Marqués de Arviza, SL	B26336370	327.600,00	150.696,00
19	00001-PRO2022-13	Familia Martínez Bujanda, SL	B01486778	111.852,00	51.451,92
20	00014-PRO2022-13	Roger Goulart, SA	A08409336	496.080,00	228.196,80
21	00019-PRO2022-13	El Coto de Rioja, SA	A01129378	459.342,00	211.297,32
22	00011-PRO2022-13	Bodegas Casa Primicia, SA	A01032564	167.976,90	77.269,37
23	00008-PRO2022-13	Bodegas Faustino, SL	B01235308	5.000.000,00	2.300.000,00
24	00029-PRO2022-13	Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SL Unipersonal	B01414531	2.044.120,00	940.295,20
25	00024-PRO2022-13	Bodegas Medrano Irazu, SL	B01420462	53.971,92	24.827,08
26	00012-PRO2022-13	Muriel Wines, S.L	B64143506	1.079.091,00	496.381,86
27	00017-PRO2022-13	Spanish Fine Wines, SL	B01323203	1.696.383,00	780.336,18
28	00016-PRO2022-13	Araex Rioja Alavesa, SL	B01385061	1.468.231,00	675.386,26